

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak "Oporrak bakean" programan parte hartzen duten 21 neska-mutil saharar hartu ditu

Guztira, 115 neska-mutil dira, eta Nafarroako abegi-familiekin bizitzen ari dira ekainetik

Miércoles, 17 de agosto de 2011

Nafarroako Lehendakariak, Yolanda Barcina Angulok, iragan ekainetik Nafarroan dauden hogeita bat neska-mutil saharar hartu ditu gaur Nafarroako Jauregiko Tronu aretoan, Nafarroako Lagunen Nafarroako Elkarte (ANAS) egiten ari den "Oporrak bakean" programaren hamaseigarren edizioaren barruan.



Barcina Lehendakaria, Torres kontseilaria, Salama eta Garcia, neska-mutil sahararrekin

Ekitaldian Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilaria, Elena Torres Mirandak; Saharako herriaren Nafarroako ordezkariak, Ahmed Salamak eta ANASeko buruak, Carol Garcia Pellejosek, parte hartu dute.

Barcinak familiak zoriondu ditu, eta Nafarroako irudiaren onera egiten duten lana eskertu die, bere ustez, neska-mutil horiek, helduak direnean, gure lurraren mandatariak izango baitira. Halaber, elkarte animatu du, "ekimen hori bizirik mantentzen jarrai dezan".

Lehendakariak, Foru Erkidegoan egondako denboran gozatu izana espero duela adierazi die neska-mutilei, eta, hemen, atek beti irekita izango dituztela gogoratu die.

Bestalde, Salamak, Nafarroako Gobernuak Saharako herriari emandako laguntza eskertu du, eta baita familiekin, krisia egon arren, adingabe hauek hartuz egindako lana ere.

"Oporrak bakean" programaren bidez, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu-esparruan bizi diren 7 eta 12 urte arteko 115 neska-mutil etorri dira uda honetan Nafarroara. Haietatik, 109, Iruñeko eta Eskualdeko, Tuterako, Baztango edo Estellerriako abegi-familiekin bizi dira, eta, sei, ezgaitasunen bat dutenak, Berriozarko etxebizitza batean bizi dira. Neska-mutil horietatik, 97, aurreko udetan ere parte hartu zuten programan Nafarroako familiekin.

Bi hilabete hauetan, neska-mutilak abegi-familiekin bizi izan dira, eta zenbait ekitalditan egon dira elkarrekin. Bidaieri esker, gainera, Saharako herriko mandatari bihurtu dira Foru Erkidegoan.

Gehienez, bost urtez goza dezakete programa honetaz, eta, ahal bada, familia berekin egon daitezke beti aldi horretan, harremana estutzeko.

Gogoratu behar da Saharako Lagunen Nafarroako Elkarteak lan solidario hori egiteaz gain, hartutako adingabeen familiak, urtean bitan, Aste Santuan eta abenduan hain zuzen, errefuxiatu-esparruetara joaten direla hartutako adingabeak bisitatzeko.

Nafarroako Gobernuaren laguntza

Nafarroako Gobernuak 419.186 euro bideratu zituen Saharako biztanleentzat 2010. urtean, hasieran aurreikusitakoa baino % 10 gehiago (382.733 euro). Tindufen errefuxiatutako sahararrak izan dira Nafarroaren garapenerako laguntza ofizialaren hartzaile nagusietako batzuk, 2007. eta 2010. urtean. Aldi horretan, 1,8 milioi euro baino gehiago bideratu ditu, hots, hasieran aurreikusitako kopurua baino % 23 gehiago. "Saharako biztanleentzako laguntza humanitariorako" bideratutako aurrekontuko partidaren hasierako zenbatekoa 270.000 eurokoa da.

ANAS elkarteak Nafarroako Gobernuaren eskutik laguntza ekonomikorik handiena jaso duen erakundeetako bat da; izan ere, 2007. urtetik 536.093 euro jaso ditu. Laguntza horietatik, 423.000 euro, Saharako errefuxiatuen osasunarekin zerikusia duten proiektuetarako bideratu dira, eta beste 113.093 euro, Tinduf-en hartutako hezkuntza hobetzeko jardueretarako. ANAS, Nafarroan dagoen sahararren ordezkariaren ekimenari esker sortu zen. Jendea bilatu zuen ordezkariaren jardueretan laguntzeko elkarteak osatzeko, Fronte Polisarioaren ekimenaren bidez sortutakoa.